

**BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
INGURUMENAREN MAHAI SEKTORIALA -HERRITARREN 1. BILERA (2021-05-26)**

Bertaraturakoak:

- Aitor Aldazabal (Kukubaso Elkartea)
- Joseba Susaeta (Kukubaso Elkartea)
- Iñaki Medinabeitia (Mendia Bizirik Elkartea)
- Larraitz Uribesaldo (Herri hezitzailea)
- Aiert Lizarralde (Mekolalde Auzoa)
- Nerea Egia (Udaleko Ingurumen-teknikaria)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Oihane Arruabarrena (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, eta “Bergara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan herritarrekin eginiko elkarrizketa saioetan jasotako ekarpenekin osaturiko diagnostikotik, udala formulazio estrategikorako lehen urratsak ematen hasi dela jakinarazi die gerturatutakoei.

Lehenik eta behin, apirilean izandako lehen herri-batzarrean herritarrekin eginiko lanketatik aholkularitza-enpresako kideek idatzi duten 2030erako ikuspegia azaldu da. Herritarrei 2030 urtean Bergarak izango dituen ezaugarri nagusiak zehazteko eskatu zitzaizen eta gehien nabarmendu zituzten hitzekin osatu da **2030erako ikuspegia** (hau da, Bergararen etorkizuneko irudi desiragarria).

Ikuspegia:

“Bergara inklusiboa izango da 2030ean, adin, jatorri eta egoera ezberdinean aurkitzen diren herritarrei enpatiaz erantzungo diena. Ekonomia eredu jasangarriaren bidean, herritar orori lan-duina eskaintzen dion eta aldi berean natura zaintzen duen komunitatea izango gara, osasuna lehentasun moduan duen herri goxo batean bihurtu dena. Gizarte euskalduna izango da gurea, kultura-, kirola- eta hezkuntza-eskaintza zabala dituen. Ikuspegi partehartzaile eta feministatik erronka berriei aurre egiten dien auzo-herria izango gara..”

Bileraren helburua ingurumen alderdiekin zerikusia duten helburu estrategikoak eta helburu zehatzak definitzen hastea izango da, udaleko mahai teknikoetan egin den lana osatzeari begira. Horretarako galdera honi erantzutea eskatu zaie bertaratu direnei: Zer egin dezakegu 2030eko ikuspegia lortzeko?. Galderari erantzuteko ingurumen alderdiekin zerikusia duten diagnostikotik eratorritako lehentasunezko jarduerak azaldu dira inspirazio moduan lagungarri izan zitezten.

Ingurumen alderdiei loturik helburuak zehazteko lau azpi-arloen baitan ekarpenak egiteko tarte eman da eta ondoren horman zintzilaturiko paperetan zintzilatu dira ideiak amankomunean jartzeko.

Hauek izan dira azpi arlo bakoitzeko jaso diren ekarpenak:

URA

- Ur guztien arazketa bermatu behar da, hauen diagnostiko bat egin eta hiri barruko puntuak araztegiara bideratuz eta landa eremuko etxebizitzetan filtro biologikodun hobi septikoak ezartzeko neurriak hartuz. Oraindik errekarera doaz ur zikinak hainbat puntutan (Elgeta eta Antzuolatik, landa etxe eta baserrietatik).
- Ur emarien neurketak egin beharko lirateke ur emari egokiak bermatzeko neurriak hartuz, baita basoen atxikipen-hidrikoaren gaitasuna kalkulatzeko ere. Klima aldaketari begira ur eskaria handitzeak arazoak ekar ditzakeenez, ur hornidura puntuak (putzuak eta ur-baltsak) babestea. Gero eta elikagai gehiago herrian ekoizteak ere ur eskaria nabarmen areagotzea ekar dezake.
- Ur deposituak (Albitxukoa) martxan jartzea beharrezkoa da, klima aldaketaren aurrean paper garrantzitsua bete baitezakete bigarren aukerako ur iturri moduan.
- Uraren ustiapen jasangarria sustatzeko hiriko drainatze-sistemak ezarri beharko lirateke (SUD), betez ere urbanizazio berrietan: zoladura iragazkorak, ur-lorategiak, euri ura berreskuratzeko sistemak, etab. Baita ere basoak sustatzea uraren atxikipen-gaitasuna baliatzeko.

ENERGIA

- Energiaren arloan lehen neurria kontsumoa murriztea behar luke izan, eta, beraz, eraikinen energia eraginkortasunaren bila joatea ezinbestekoa da (inguratzailer termikoa, etab.). Udal eraikinetan ez ezik, etxebizitza parkea ere pixkanaka hobetu beharreko gaia da, horretarako laguntza eskainiz.
- Biomasa energia berriztagarritzat dugu, baina egurra bezalako lehengaia sortzeak suposatzen duen ingurumen kostua handia izanik, ez litzateke horrela izan behar. Honen aurrean bestelako energia berriztagarriengatik egin beharko litzateke apustua (eguzki energia, etab.).
- Kale argiteria gain-dimentsionatua dagoela dirudi eta arrazionalizatu beharko litzateke benetako beharretara, auzo eta kale arteko desorekak ekidinez.
- Energia planetean energia iturri ezberdinen azterketa sakonagoa egin beharko litzateke.

HONDAKINAK

- Industria-hondakinen azterketa eta jarraipena egin beharko litzateke, industriak hondakin asko sortzen baitu Bergaran.
- Hondakinak murrizteko bildukinak dituzten produktuei trabak jarri beharko litzazkieke, zergen bitartez. Ontzi eta bildukinen itzulera ("retorno") bultzatu beharko litzateke (SDDR, adibidez).
- Hondakinek errekan amaitu ez dezaten neurriak hartzea (estolderietan, ibai ertzeko baranden oinean saretxoak, auzolanak antolatzea, URA agentziaren eta Udalaren inplikazio handiagoa, auzolana sustatzea...).

INGURUMENAREN KALITATEA, ATMOSFERA, AKUSTIKA ETA LURZORUA

- Zarata-kutsaduraren iturri ezberdinak ditu Bergarak eta hauek identifikatu nahiz murrizteko neurriak hartu beharko lirateke (Zarata Planetean jasota dauden neurriak gauzatu beharko lirateke): Errepideetako trafiko zarata da bat, mugikortasun planetean kontutan hartu beharko dena, trafiko dentsitatea gutxitu (30 hiria, errepideen konfigurazioa moldatuz, kaleak patonalizatuz, bertako autoek sahiesbidea gehiago erabiltzera bideratzea...) eta eremu kaltetuenak baretzeko neurriekin (bariantearen ondoan eskolak daude, adibidez); bestea,

industriak eragiten duena da; eta, azkenik, ostalaritza jarduerak kalean eragiten duena, honek ere giza osasunean duen kaltea aintzat hartu behar delarik. Isiltasunaren kultura bultzatu behar da, gauzez batez ere, ohituegi gaude zaratarara.

- Ingurumen-kalitateak zuzeneko lotura du osasunarekin eta herritarren ongizatearekin. Hori horrela izanda, herrian eremu zehazten babesguneak sortu beharko lirateke zaurgarrienak diren herritarrei eta natur elementuei begira (eskola eremuak, helduen bilguneak, aisialdirako eremu eta ibilbideak, erreka ingurua, hiri inguruko basoak, etab.).
- Udalerriko lurren kabono atxikipenaren azterketa egitea eta hori bermatu edota handitzeko neurriak hartzeko plana egitea.

KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU GLOBALA

- Mugikortasun planean ezartzen diren neurriak lotura zuzena izango dute BEG isurpenen murriztearekin.
- Hiriaren eta hiri-inguruaren birnaturalizazioa gakoa izango da klima-aldaketaren aurrean. Herrigunetik kanporako basoak berreskuratu eta zabaltzeko ezinbestekoa izango da lur publiko gehiago eskuratzea. Hiri-inguruko mendi eta ibaietan bertako espezieei garrantzia eman behar zaie. Honez gain, hirigunean ere trama berdea eraiki beharko litzateke, klima-aldaketak ekarriko dituen arriskuen aurrean (bero boladak, ur gabezia, etab.) ezinbestekoa izango baita gerizpe guneak sortzea. Hemen ere bertako espezieak lehenetsi beharko lirateke ur eskari baxua izatean duten abantailagatik.
- Elikagai-burujabetasuna lortzeko ezinbestekoa izango da nekazaritzarako (batik bat, ekologikorako) baliozkoak diren lur-eremuak identifikatu eta eskuratzea, lur-erreserba edo banku bat sortuz. Honek elikagaiak kanpotik ekartzeko beharra murriztuko luke, BEG isurpenen murrizketarekin batera.

BESTEAK:

- Orohar baliabideen erabilera eta kontsumo eredu berriak garatzeko lan pedagogiko handia egin behar da, baita legeak eskaintzen dituen erremintak baliatzea ere (zergak, mugak...). Izan ere, kontsumoa murriztean egongo da gakoa (ura, energia, lehengaiak, etab.). Horri lotutako ekintza zehatzetatik hasi beharra dago, pixkanaka gizartean ohiturak sendotzera bidean.
- Argi-kutsadura ekiditeko argiterian gorantza doan argitasuna ekidin beharko litzateke (garrantzia historiko edo arkitektonikoa duten eraikuntzak gauzez argitzeko joera kritikoki balioztatzea ere).
- Oinezko mugikortasuna osasunarekin eta energia-kontsumoaren murrizpenarekin lotu beharko litzateke.

Dinamikarekin amaitu ostean, mahai sektorialaren hurrengo bileraren helburuak azaldu dituzte aholkulariek.

Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 20:00etan amaitu da.